

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko ekainaren 30a / VI. urtea / 185. zenbakia

Albaitarien liburua

**LIBRO DE ALBEYTE
RIA QUE TRACTA DEL PRIN-
CIPIO Y GENERACION DE LOS CAVALLOS,
hasta su vez. Y assi mesmo los remedios para curar sus enfermeda-
des, y de las Mulas, y otros animales, muy vil y puechofo para todos
los Albeytates y Cirujanos, y para otras qualesquier personas
que tuieren o curaren los dichos animales. Compuesto
por Pero Lopez de Camora, Protho Albey-
tar que fue del Reyno de Navarra.**

*Visto y examinado, el año de 1588, por el Alcaide
de la Emperatriz.*

*Dirigido al muy alto y muy poderoso Rey don
Philippe nuestro Señor.*



CON LICENCIA

Impreso en la muy noble y muy leal ciudad de Logroño,
Por Mathias Marea, Año de 1588. Años.

1995

Duela bi asteko Nafarkarian (hilak 16) 'Nafarroako Historia' Pedro Agramont Zaldibarren liburua berri eman genuen, eta bertan aztertu liburuaren ekarpena eta euskarari buruz zeuden hainbat datu bitxi eta interesgarri. Oraingoan harekin parekotasunak dituen beste bat dakarkigu orrialde hauetara. Pedro Lopez Nafarroako lehen Albaitari Nagusiak idatziriko 'Albaitaritzza Liburua' hain zuzen. 1571an argitaratuta, Teofilo Etxeberrria albaitariak argitaratu berri du, eta arrunt ezezaguna izateaz gain, Tuteran euskarari buruzko beste aipamen esanguratsuak daude bertan jasoak.

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Gazteak

Eguna argitu zuenean erlojuak puxkatu genituen espaloien kontra. Kalegarbitzaileak izerditan gogotik saiatzen ari ziren egunen liburuko gauaren orria pasatzen. Eguzkia tiroka hasi zen eta arbolek odol lingirdatsua isuri zuten aspaldiko udarik arrotzenaren jaiotzan. Lankratx eta biak arratoi izituak ginen, eskapoka zulo baten bila.

'Gazte eguna' irakurri zuen adiskideak paretako paperean. Hori ez tuk guretzat erran nion nik. Guk, badakik, 'Jan'-goikoa eta lege zaharrak. Gurea 'gazta' eguna duk, motel! Astelehenean Araizko artzainaren karroa betea etorriko zela bagenuen esperantza eta eraso prestatu beharko genuen zakua eta zorroa betetzeko. Bitartean nola edo hala tira, intxaur txar batzuekin eta ardo pixarrarekin (zahatoa gu baino tristeago zegoen).

Gizon jakintsuaren atea jo genuen kax-kax eta informazioa eman zigun eskuan utzi genizkion azkeneko sosen truke («ekilikua!»); munduak segitzen zuela bueltaka eta zaharrak berri. Baina urduri eta kezkatua zirudien halere. Haize zakarra zabilek bazter hotan! erran zigun bekainak goiti eginez. Herritarren arteko haserreaz eta gatazkaz, zaurien minaz, gorrotoaz... egin zigun solas. Handik guttura jende gehiago hurbildu zen etxe hartara. Begietan urte aunitzetako urak pilatutako ibaiak ageri zitzaizkien guzietan. Denak mar-mar heldu ziren herriko giro nahasia aipatzen. Kanpora ateratzeko probetxatu genuen.

Gazte 'gaiztoak' bezperan ibili zirela ari zitzaion atso bat bertzeari leihotik leihora. Desafioka, irrintzika eta harrika paseiatu zirela. Gazte 'aiztoak'! erran zuen Lankratxek. Oraindik kamustu gabeak, alegia. Balekite zer eta nor eta zergatik zizta, ordea. Hemen... orain dela hogeita hamar urteko ero haiek heroi eta saindu bihurtu genituan, eta gero gerokoak! Horrek lilura eragiten dik eta... IXildu egin zen. Erljio eta fede itsu horiek guziak... lagundu nion nik. Majo! atera zitzaigun bieci batera, eta kuluxka bat egiteko tenorea zela erabaki genuen. Gaztetik gaztera, egun batzuk lehenago errepideko ezbeharrean ilargira plaut erori berria nuen lehengusu maitagarriaz oroitu nintzen orduan. Baita hamabost urte lehenago adin berarekin bertze ustekabeko batean putzu berera erori zitzaigun adiskide zoragarriaz ere. Orduko hartan mutu eta oraingoan ere harri gelditu nintzen. Eta Lesakako poetak bezala mailua lokietan joka sumatzen nuen «ez dut ententitzen nola ez dute para debekurik 23 urtetan hiltzeko».

GUERE AUKERAK

IKASTAROAK

Eszenografia, Esgrima, Gidoien Idazkera, Interpretazioa, Zuzendaritza eta Haurrentzako Antzerkia eta Joku Tailerrak ikastaroak antolatu ditu udarako Nafarroako Antzerki Eskolak. Matrikula epeak ekainaren 26a eta 30a bitartean eta abuztuko 7a eta 14a bitartean daude zabalik.

Urtxintxa Aisialdirako Hezlarien Eskolak ikastaro bat antolatu du irailerako, aisialdirako begiraleei zuzendurik. Ikastaroa irailaren 4an hasi eta 30an bukatuko da, astelehenetik ostiralera. Informazio gehiago nahi izanez gero 21 14 78 telefonora deitu.

ANTZERKIA



'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izenburuko antzezlanaren taularatuko du gaur ostirala, hilak 30, Iruña Pequeño Teatro taldeak Sesma herrian. Gaueko 10.00etan hasita, herriko plazan izanen da.

Gabalzeka antzerki taldeak 'La señorita Julia' izeneko obra taularatuko du gaur ostirala, hilak 30, Tafallako Kultur Etxean. Antzerki Gauak zikloaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da.

Melody Sisters eta Gag Machine antzerki taldeek obra bat antzeztuko dute heldu den astelehenean, hilak 3, Iruñeko Niza kafetegian. Gaueko 11.00etan hasiko da.

MUSIKA



'Nahi ta nahi ez' eta 'Behin betiko' musika taldeen kontzertua izanen da heldu den astelehenean, uztailak 3, Arruazun. Herriko jaiaren programaren barruan sartua, gaueko 10.00etan hasiko da, herriko plazan.

Elton John abeslariak kontzertua eskainiko du heldu den asteartean, hilak 4, Iruñeko Sadar futbol zelaietan. Osasuna taldearen 75. urteurrena ospatzeko antolatua, gaueko 9.00etan hasiko da. Sarrerak 4.500 pezetan salduko dituzte.

'Taxikarlo', 'Koma', 'No Preocupare', 'Fools de Txirris' eta 'Jam Session' musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, hilak 1, Arrizabalagan. Gaueko 10.00etan hasita, sarrera dohainik izanen da.

'Los Dinosaurios' musika taldeak kontzertua emanen du gaur ostirala, hilak 30, Iruñeko Aita Salestarren Aretoan. Berarekin batera Pop Rock lehiaketaren irabazlea ariko da. Gaueko 9.00etan hasiko da.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Erraz gainera

Abiatu zaigu beraz atarrabiarra Paris aldera. Olinpoa konkistatzera. Bere bosgarren Tourra lortuko ote duen zalantzan jartzeko arrazoirik ez dagoela esan berri du hobekien ezagutzen duenarik batek, Eusebio Unzuek. Indurainzaleak lasai egon daitezke, bada. Beti bezala? Gehiago, iruditzen zait. Ez dut ikusi azken urteetan Miguelen aldeko aurten adina traza.

Kontrarioen keinuak ere ez zaizkit gehiegi gustatu. Romingerrek menderatu egin zuen Giroa, baina nekatuta amaitu zuela iruditu zitzaidan, eta Suitzako Itzulian erretiratu egin zen. Gripeak gripe, seinale txarra. Atzeratu egiten du prestakuntza eta gorputza erabat sasoiko ez dagoela erakusten ohi du horrek. Menderaezina zirudien taldeak ere baja itzelak ditu —Olando,

txirrindularia dela ezin dut ezkutatu.

Hala ere, ez nuen sobera fin ikusi Eibarko Bizikletan, ez baita Tourraren irabazle baten marka Frattini gaztetxo bati ezin jarraitua. Eraso egingo dio, erasoko dionez, eta handia izango dela ez dut dudarik. Aurten, baina...

Suitzar antiojudunak, bestalde, erakutsi egin behar du oraindik mendian eraso egiteko



Ez du parte hartu Giroan, baina aurtengoa ez zen horretarako garai onena. Hilabete luzea zegoen bi biren artean eta jakina da zaila izaten dela ia hiru hilabete jarraian puntu gorenari eustea. Aritu den frogetan txukun ibili da Banestokoa eta ez du kontrariorik izan, ez Espainia aldeko probetan, ez Midi Libren edo Dauphine Liberen.

Baffi, Etxabe, Unzaga— eta Giroan barruak jota aritu zirenekin ari beharko. Bere taldekide batek ere zalantzan jarri du suitzarrak egin dezakeena...

Berzin eta Zulle dira kandidatura aurkeztu duten beste biak. Aurkeztu dezaketen bakarrak, nik uste. Lehenak Tourra prestatu du aurten, bistan denez, eta ene gustuko

kapaza den. Ez dut inoiz ikusi horrelakoetan, eta erlojupekoan ez du gaindituko Indurain, ez luzeetan bederen. Pantani? Ikusi beharko nola bizkortu den erorikoa izan ondotik.

Zalantza gehiegixko taldea oso-osorik eta arazorik gabe eramane duen Migueli aurre egiteko. Bosgarrena? Erraz gainera.

ASTEKO PERTSONAIAK



Lola Eguren
Parlamentuko lehendakaria

Lehen aldiz Nafarroan emakume batek beteko du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren kargua, Lola Eguren sozialista joan den astelehenean aukeratu baitzuten postu horretarako. PSN, CDN eta EA alderdien botoei esker atera zen, aurrerabideko gobernuaren barruko negoziaketetan. Oso pozik agertu zen Lola Eguren, bere neurri egin dagoen lana zela azalduz. Era berean, bere karguan «emakumeen sentsibilitatea erakusten» saiatuko dela adierazi zuen izendatu zuten egun berean. Orain dela 38 urte Iruñean jaioa, bi seme-alaba ditu eta dibortziatua dago. Lola Eguren printzipioz, lau urterako hautatu dute, eta hasiera-hasieratik iragarri zuen epe osoa karguan emateko asmoa duela.



Txaro Pardo
Peñen Batzordeko burua

Peñen Eguna ospatuko da asteburu honetan Iruñean, aurten lehen aldiz, bi egunetan banaturik: larunbat arratsaldean eta igande goizean. Sanferminetako pregoia izaten da urtero ospakizun hau, Peñen Batzordeak antolatzen duena. Txaro Pardo Batzordeko buruak eman zituen zehaztasun guztiak, baita festetarako peñek prestatu duten programa ere. Zenbait gauza, ordea, zintzilik daude oraindik, Riau-Riua esate baterako. «Udal plenoa 5an egiten bada, alkate berriari Riau-Riua antolatzeko eskatuko diogu, Iruñeko jende guztiak nahi duela», Txaro Pardoren hitzetan. Zezen plazako egoerari buruz ere mintzatu zen, urtero sortzen diren arazoak alde batera uztea baita beraien asmoa eta horretarako lanean ari dira, jendea kontzientziatu nahian.

JAIK



Kultur ezberdinen arteko festa

ospatuko da bihar larunbata, uztailak 1, Iruñeko Gazte-txean, 'Nahasketa' taldeak antolatuta. Aipatutako talde hau orain dela gutxi sortu da eta SOS Arrazakeria taldearen barruan dago sartua, arrazakeriaren kontra borrokatzea baita bere asmoa. Elkarbizitziari begira, arraza ezberdinetako kultur adierazpideak agertzea da festa honen asmoa. Bertan, kultur askotako lagunak bilduko dira, gure artean bizi direnak gehienbat. Musika ere ez da faltako, eta talde afrikar eta ijitoek hartuko dute parte ospakizun honetan. Arratsaldeko zortzietan hasiko da eta sarrera dohainik izanen dela azaldu dute antolatzaileek. Barruan, edariak salgai izanen dira tabernan, baita kamisetak, pegatinak, txapak eta bestelakoak ere. Salmenta horretan ateratzen den diruarekin arrazakeriaren kontrako zenbait ekintza burutuko dira urtean zehar.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Iruñea

Peñen Eguna asteburuan

IRUÑEA

160 erraldoi inguru bilduko dira igande honetan Iruñean, Peñek urtero antolatzen duten Peñen Egunaren barruan. 33 konpartsak izango dute topaleku Nafarroako hiriburua, eta ekitaldi nagusia hori izango bada ere, ez da animazioa faltako ez larunbatean ez igandean bertan.

Zoztzi milioi pezetako aurrekontua izango du jaiak, eta larunbatean Mekan emango zaio hasieran hainbat erakunderen laguntzaz osatu den egitarauari. Arratsaldeko bostetan, jotak, txiste kontalariak eta musika izango da zahar etxean, eta ordu bete beranduago Nafarroako Herri Kirol Txapelketaren finalak ospatuko dira San Francisco Plazan. Bukaeran, jadanik bi kanporaketak jokatuak dituen Nafarroako Trikitixa Txapelketaren finala izango da toki berean. Gogoratu behar da 15 bikotek parte hartu dutela aurten bigarren aldiz ospatu den lehiaketa honetan. Arratsaldeko seietan haur jokoak izango dira Gazteluko Plazan, eta zortzietatik aurrera txaranga zenbait ariko dira jostatzen Parte Zaharreko karrikak.

Igandean dianak izango dira goizeko zortzietatik aitzinera, eta ordu bete beranduago txokolate jana banatuko da Taconera lorategian, haur eta helduren batendako. Aukera aproposa izango da, gainera, giganteak nola apaindu eta montatzen diren ikusi ahal izateko, hori baita denen topaleku. Segizioa goizeko hamarretan hasiko da, eta Jarauta, San Saturnino, Udaletxe Plaza, Mercaderes, Estafeta, Duque de Ahumada, eta Gazteluko

Plaza izango da ibilbidea. Hortxe izango da elkarrekin erraldoi guztiek egingo duten dantzarako lekua, eta amaiera emango zaio ordubiak aldera.

Ondoren, paella erraldoia antolatu dute peñek Hemingway-

egiten duela Sanferminak, eta ez zuten aukera galdu festa hauetarako prestatu dituzten hainbat berritasun azaltzeko. Azpimarratzekoa da zezenplazan bertan «zuzen eta jator» aritzeko egin duten deialdia, eta kalean ahalik

bertan garbiketa handiagoga lortu nahi da. Halaber, sarrerak berriro saltzeko urtero errepikatzen den ohitura gutxitu egin nahi da ahal den neurrian, eta denen artean kanpaina antolatu dute peñen jarrera normala izan dadin ze-



Peñek Sanferminen hurbiltasuna iragarriko dute.

ren pasealekuan. Mila pertsona inguruk jan ahal izango dute Zezenplazan bertan prestatuko den platerra. Horrekin batera argazki lehiaketa antolatu dute peñek. Gaia erraldoiak izango dira.

Peñetako ordezkariak badakite Peñen Eguna honek iragarri

eta gehien egoteko erabaki sendoa hartu dutela azaldu zuten. «Giza zentruetan eta auzoetan parte hartze handia izaten ahaleginduko gara». Mecarekin eta Nafarroako Gobernuaren Barne Departamentuarekin izaniko hurremanen ondotik, zezenplazan

zenketen zehar. Peñetako ordezkariak azaldu zuten «gure onerako izango da zuzen jokatzen baldin badugu, horrela garbituko baitugu daukagun irudi txarra eta bakar batzuek hondatzen dutenari eutsi egingo diogu».

Burlata

BURLATA

Joan den ostiralean Burlatako Gazte Asanbladak Eslava Zinema zena okupatu zuen, eta horrek polemika sortu du herrian, lokala bertako parrokiarena baita. San Juan Bautista Elizak salatu egin du okupazio ohar baten bidez, eta azaldu du lokala udalari eskaini diola behin baino gehiagotan, baina honek ez duela erantzunik eman. «Gazteek udalari egin dizkioten eskaerak erantzunik ez dutelarik izan» dio oharra, «hauek sartu egin dira abisurik eman gabe lokalean, gure gogoz kontra eta indarrez». Elizaren ordezkariak azaldu dute, halaber, lokalek ez dituztela betetzen beharrezkoak diren baldintzak barruan egon ahal izateko, eta arazo horiek beren ardura ez direla diote. «Gurea bezalako gizarte ba-

Zinema zaharra okupatu du herriko gazte taldeak

tean erakunde zibilak dira arazo hauek konpondu behar dituztenak».

Burlatako Gazte Asanbladak, bere aldetik, okupazioa hamar urteren ondotik izan dela azpimarratu zuen, denbora honetan guztian ez baitira aintzat hartu gazteen eskakizunak lokalak izateko. Okupazioa kalejira baten ondotik izan zen, eta sarrera «modu baketsuaz eta ezer hautsi gabe» izan zela azaldu zuten prentsaurrekoan: Halaber, apaizaren eta udalaren jarrera salatu zuen taldeak. «Lokalean sartu ondoren, apaiza azaldu zen, eta

eskatu zizkigun bost sinadura gerta zitekeenaren gaineko ardurak har zitzen. Ez genizkion eman, baina gero bildu eta berarengana joan ginen. Orduan esan zigun ez zuela ez sinadurarik ez negoziaketarik nahi». Halaber, azaldu zuten udalak ez duela trabarik jarri okupazioaren aurrean, eta beren azalpena eman zuten jarrera honen inguruan. «Baliteke horrela lokala eskuratu nahi izatea, baina garbi dago haiek balira lokalaren jabeak libre uzteko eskatuko zigutela». Asteartean bertan joatekoa zen udal arkitectoak zinemari buruzko az-

terketa egitera, denek azpimarratu baitute bizitzako baldintza egokiak ez dituela.

Oraingoz bederen, gaztetxe gisa ari da zinema zaharra, eta joan den asteburuan hainbat ekintza prestatu zuten Gazte Asanbladakoek. Larunbatean festa bat antolatu zuten San Joan jaiak zirela aprobetxatuz, eta dantzariak eta bertsolariak aritu ziren lokalean, herriko gazteekin batera. Halaber, erraldoiek lokalaren atean dantza egin zuten. Igande arratsaldean zinema proiektio bi eskaini zuten: 'El cuervo' pelikula gazteentzat, eta 'Aladin' txikiarentzat. Hauei, gainera, txokolata bat egin zitzaion. Ekitaldi hauek izan zuten jarrera azpimarratu zuten gazteek. «Egin dugun guztia ongi hartu dute bizilagunek», azaldu zuten.

Tutera

Nafarroa Oinezako bideoa grabatzen hasi dira

TUTERA

Nafarroa Oinezako bideoa grabatzeari ekin diote Erriberako hiriburuan, eta asteazkenean hasi ziren lehendabiziko frogak. Ikastolako 18 haur ariko dira estreineko egun honetan, eta hurrengoetan maisu aproposak izango ziren, hala nola Serafin Zubiri, Enrique Villareal 'El Drogas' eta Erramun Martikorena. Bideoak bost minutuko iraupena izango du, eta Tuterako irudi ezagun eta esanguratsuak bilduko ditu: Ebro Ibaia, Mejana izenekoa, Alde Zaharreko karrikak eta Bardeak, besteak beste.

Manolo Gil izango da, beste hainbestetan bezala, bideoaren arduraduna, ITP Iruñeko enpresari eman baitiote Nafarroa Oinezaren antolatzaileek festaren irudia izan ohi den hau egiteko enkargua. Asteazkenean, hain zuzen ere, irudi garrantzitsuenak grabatu ziren, protagonistak ikastolaren haurrak izan baitziren. «Beraiek dira historiaren ildoari eutsi behar diotenak» azaldu zuen Manolo Gilek.

Kanta ere orduan abestu behar izan zuten ehun haurren artean aukeratutakoek, eta horretarako Mikel Ziordia tuterarrak eginiko testua ikasi behar izan zuten, jakina, ia buruz. Gaur arratsaldean ia 400 pertsona beharko dira San Francisco Javier Eskolako aretoan, aipatu abeslarien inguruan publikoa behar delako. Ikastolako arduradunek tuterarren laguntza eskatu dute, txaloak egin eta presente egoteko.

Otsagabia

Kable bidez helduko da telebista

IRUÑEA

44,5 milioi pezeta inbertituko du Nafarroako Gobernuak hainbat herritan telebista klabearen bidez jaso ahal izateko lanetan. Otsagabia, Aginaga, Autza, Zia, Igantziko bentak eta Zubielki izanen dira telebista mota honen bidez jasoko dituzten herriak. Honenbestez, Espainiako telebista guztiak jaso ahal izango dira. Mota honetako distribuzioari duela zenbait urte heldu zion gobernuak, hainbat herritan seinalea behar bezala jasotzeko ziztuzten arazoak zirela eta. Gobernu arduratzen da etxe guztietara seinalea eramaten, eta horretarako egokia den toki batetik jasotzen da seinalea.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA


Liburuaren autoedizioa izan da Teofilo Etxeberriarena, berak bilatu baitzuen liburua, berak eskuratu eta inprimatu. Albaitari erretiratua berau, duela sei urte hasi zen Nafarroako artxiobotan barna miatzen, denborapasan, Nafarroako lehen albaitari nagusiari egindako epaiketa baten erreferentzia aurkitu zuenean. Ondoren, 'Albaitaritzaren Historia' Cesareo Sanzegañaren liburuan ere irakurri ahal izan zuen Zamorako Pedro Lopez honen lanari buruzko aipamena eta Nafarroan ez zegoela sinetsirik, Madrileko Liburutegi Nazionalera jo zuen Etxeberriak. Han bazutela esan, fotokopiatu eta inprentara eraman zuen. Den bere kabuz. «Historiarekin minbera naiz zeharo» azaldu digu Iruñeko bere etxean.

Liburua arrunt ezezaguna da Nafarroan, eta Etxeberriak inongo artxiobotan ote dagoen ziurtatzerik izan ez badu ere, ez du alerik aurkitu. Eta, hala ere, Pedro Lopez Zamorakoa albaitari garrantzitsuenetakoa izan zen lurraldearen historian. Bera izan zen Nafarroak izan zuen lehen Albaitari Nagusia, 1546an izendatu baitzuen Erregeordeak. Postu garrantzitsu hori bete zuen hil arte, 1564ra arte, hain zuzen ere. Gaztelan 1475tik aurrera kargu hori baldin bazegoen ere, Nafarroan orduan eratu zen, eta 1834ra arte iraun: 21 izan ziren betebeharrak hori nola edo hala eraman zutenak.

Kontuan harturik joan den mendeetan lurraldeko alderdi guztietan abeltzantzak izan duen garrantzia, ez da azaldu beharrik mail handiko postua zela Albaitari Nagusiarena. Bere betebeharrak nagusia zen herrialdeko albaitari guztiek bete zezatela ongi euren lana, eta gainera berak egiten zien azterketa lanbidean aritu nahi zutenei. Garai hartan albaitari lanetan aritu ahal izateko, ia lanbide guztietan bezala, praktikan egon beharra zegoen hainbat urtez tituludun batekin, eta gero azterketa egin.

LIBURUA IKUSI GABE HIL Pedro Lopez Zamoratik heldu zen Tuterara zehaztugabeko urtean, eta han ezkondu zen Pitillas abizena zuen tuterarrarekin. Berehala hartu zuen ospea albaitari gisa egin zuen lanarengatik, eta Albaitari Nagusia izendatu zuen erregeordeak, esan bezala. Bere bizitzako azken urteetan idatzi zuen albaitaritzaren buruzko liburua, baina 1564an hil zen liburua argia ikusi ez zuela. Catalina Amunarrizkoa bere bigarren emaztea arduratu zen edizioan eta 1571an ikusi zuen argia Iruñean. Bigarren edizioa apailatu zen 1588an.

Teofilo Etxeberriaren ustetan, liburu honek garbi erakusten du Pedro Lopez honen maila intelektuala, orduko jakinduria kontuan harturik munta handiko lana



Teofilo Etxeberria, liburuarekin Iruñeko bere etxean.

ALBERTO BARANDIARAN

Pedro Lopez Nafarroako lehen albaitari nagusiaren 'Albaitaritzaren Liburua' argitaratu berri du Teofilo Etxeberria Belzunegi albaitari erretiratua, Madrileko Liburutegi Nazionalan aurkitu ondoren. Liburu hau kontsultakoa izan zen hainbat mendetan zehar lurraldeko albaitarientzat, eta garai hartako eritasun eta ohiturei buruz datu franko ematen ditu.

Lehen albaitaritzaren liburua

Lopez de Zamoraren liburuan oso garbi antzematen da egileak zaldiei dien estima handia, iradokizun gehienak azienda hauei buruz direlako.

egiten baitu bertan Zamorakoak. Halaber, gizon garrantzitsua izan zela ezin uka, hil zen arte ospe handia eskuratu baitzuen Nafarroan. Tuterako udalak, esate baterako, tuterarrak egin zuen «soldata eta ostaturako eskubidearekin», albaitari ona izateagatik, eta Erriberako hiriburuko elizaren alderdi nagusia egin ahal izateko Domingo Segurakoak eskatu behar izan zuen abala berari eskatu zion.

Liburuaren aitzinsolasean Felipe II Espainiako erregeari egiten zaio aipu, eta liburua idaztearen zergatia egiten du Pedro Lopezek. «Oso zaharra nintzelarik, hainbat urtez albaitaritzan aritu ondoren ikasi dudana honi buruz

Liburua arrunt ezezaguna da Nafarroan, eta Etxeberriak inongo artxiobotan ote dagoen ziurtatzerik izan ez badu ere, ez du alerik aurkitu.

idaztea deliberatu nuen, bai esperientziagatik, bai eta Luis Cacereskoa, Diego de la Reyna eta Ambrosiorekin izan diutudan solasaldiengatik (...), hilak direnez lanbide honetaz ezer ez argitaratu gabe, zure maiestateren zerbitzuan dauden mutikoei erakusteko, ni hiltzen naizenerako lanbide duin honi buruz zerbait idatzita utzi nahi izan nuen...».

ZALDIEKIKO ESTIMA HANDIA Liburuan garbi antzematen da egileak zaldiei

ko zuen estima, iradokizun gehienak azienda hauei buruz direlako. Teofilo Etxeberriaren aburuz, orriotan irakur daitezkeen azalpenek garai hartako albaitaritzan aditu batenak dira, eta ez du dudarik liburuak arrakasta izango zuela. Aipatu behar da Espainia osoan hiru direla gai honi buruz XVI. mendean argitaraturiko liburuak. Francisco de la Reynarena da bata, 1552an argitaratuta. Ferratzeko arteaz eta eritasunez ematen dituen irakazpenez gain, aipatzekoa da oso odolari buruz dakarren esaldia, antzematen baitu bere zirkulazioaren nondik norakoa. Adituen ustez, Miguel Servet medikua erekin batera egin zuen aurkikuntza de la Reynak. Alonso Suarezek 1564an argitaratu zuen mota honetako beste liburu bat Toledon, eta Fernando Calvok 1587an Salamancan. Kontuan harturik garai hartan zeuden sinismen handi eta ziurtasun zientifiko eskasak —duela gutxi arte iraun dutenak—, ez da harrizkera Pedro Lopezen liburua mesanotzekoa izan bazen albaitari askorendako. Datu eta gai zientifikoak gora-behera, interesgarria da oso Albaitari Nagusia izendatzeko Iruñeko beste albaitarietarako zitu zuten trabak, ardura handikoa izango baitzen hortik aurrera kargua. Finean, Albaitari Nagusiaren aurrean gainditu beharreko azterketaren aurka azaldu ziren albaitariak, eta hortik

Cap. xij. Como se han de castigar los cauallos.
el cauallo en el suelo derecho la boca y hocico del cauallo, y no atrauellado: porq' el colmillo tiene vna buelta que si se toma atrauellado, se quebrara, o cortara sin salir de cuajo; y tomandolo como digo de oco falo derecho, y de quajo, y despues de fadoo haras vna forma de fopas, como los mismos colmillos meter las dentro en el agujero de do salen los colmillos, estos se vntan con termicina y azeite rofado, par tes y guales, caliente vna vez cada dia, hecho esto, le echaran vna benda dentro en la boca ancha de quatro dedos, que tenga debaxo de si las estopas con fus cabezales apretadas, y atada la benda por debaxo la baxua, de manera que no se cayga la medicina. Durante este tiempo no le enffrenara con freno de suado, sino que este estopado con las estopas en los mismos asientos del freno. Hecho esto haras vn lauatorio de vinagre agulado, y miel, y sal, y es vn fopo de chirapatado a vn palo, le lauaras menudo, frio el lauatorio: despues que vngan las llagas a cicatrizar, vntan el lauatorio, echando dentro vn poco de alun de roc quemado y molido: y desta manera se ha de curar. Los dichos cauallos que se desdullan. Si a caso fueren accidentes, langrar lo han de la parte contraria de vn pecho. Y hecho esto le quitaran del mantenimiento: porque no haya mucha cantidad de humor, hara exercicio, porque gaste del mantenimiento lobrado que los miembros tienen. Anfi mesmo vnta con los defensivos de vinagre, harina de trigo cernida, bolo armenico molido, todo junto dos partes de vinagre, dos de harina, vna de bolo armenico, co esto todo rebuelto le cargaran la gargita y fienes encima de los ojos, cerca de vn dedo de los colmillos, y segun fueren accidentes, asi haras lo que cono digolo, porque si los accidentes fueren a aumentarse de nuevo, tornara enuacuar le dela otra parte del cuajo: pero ha de fer coliderado la boca, y de mirar el tiempo en que son los accidentes. Hecho esto, concho el descolillar y la curacion de la boca toda via me ahrmo que es cosa grofa, y que no deue hazerfe la boca obra, y doy por consejo q' no lo hazas.

Capitu. xij. Que se ha de castigar los cauallos.
Digo que se ha de castigar los cauallos desta manera: metras el cuajillo en la boca, y cola para hazer el cuajo: pero ha de fer coliderado la boca, y de mirar el tiempo en que son los accidentes. Hecho esto, concho el descolillar y la curacion de la boca toda via me ahrmo que es cosa grofa, y que no deue hazerfe la boca obra, y doy por consejo q' no lo hazas.

Capitu. xij. Que se ha de castigar los cauallos.
Digo que se ha de castigar los cauallos desta manera: metras el cuajillo en la boca, y cola para hazer el cuajo: pero ha de fer coliderado la boca, y de mirar el tiempo en que son los accidentes. Hecho esto, concho el descolillar y la curacion de la boca toda via me ahrmo que es cosa grofa, y que no deue hazerfe la boca obra, y doy por consejo q' no lo hazas.

Euskararen historiako datu gehiago Tuteratik. Erresumako Albayter nagusiaren inguruko auzia

IÑAKI AZKONA

Iruñeko Udaleko euskara teknikaria

Albaitari nagusiaren tituluak oposizio handia sortu zuen hasieran Nafarroako albaitarien artean, eta auzia izan zen Pedro Lopezen aurka, posturako egokia ez zelakoan. Argudioen artean, euskalduna ez zela azpimarratu zuten lekuko batzuek. Honi buruz idazki hau idatzi du Iñaki Azkona Iruñeko Udaleko euskara teknikariak.

aurrean, hartutako erabakia ezabatu behar zela azken hauek eskatzen zutelarik.

Auzibidean Iruñeko Joan de Vera eta Sancho de Sarasa Iruñeko Kofradiakoak ordezkariak bezala hartu zituzten beren nahiaren alde auzian aritzeko eta hauek gure kasuarekiko interesik ez duten beste argumentuen artean honakoa planteatu zuten: Tuterako lau lekukoek estimatzen zuten euskalduna ez izatea kaltegarria zela Nafar jendearentzat, eta honela deklaratu zuten:

«no era bascongado... y la ma-

yor parte del Reyno es bascongado».

«por ser castellano como es no sabía bascuence porque no es dado el bascuence a los castellanos».

«algunas veces hablando con bascongados le ha visto

tener persona que le declarase en romance lo que el bascongado le decía por no poder entender de otra manera».

«suele buscar un intérprete para que le declare y le diga lo que quiere o ha menester, y que en ello pasa trabajo y que por ello se alegraría mucho de saber hablar vascuence para dar reacaudo

a los que van a su casa».


Kontuan hartzekoa da Tuterakoak direla testigantza emaleak eta Tuteran bizi izan dela ordurarte gure Albaitari Nagusia izendatu berria, beraz azken bi lekukotasunak Tuteran gertatuak direla pentsa dezakegu probabilitate handienaz.

Honek Hamaseigarren mendean Tuteran Euskarak zuen presentzia kontuan hartzekoa zela pentsatzera eramaten gaitu modu zuzenean, eta hau beste aldetik logikoa da eta bat ere ez harrigarria Nafartarren gehiengo handi bat euskalduna eta neurri handiz elebakarra zela seguru baitakigu.

Errenazimenduaren XVI. eta XVII. mende hauetan, euskararen presentzia eta erabilera gauza normala izango zen seguru aski Tuterako plaza eta karrketan hara joandako hainbat mandazain, merkatari, artzai transhumante, soldadu, nekazaritzako langile eta beste bidaiarien ahoetan eta baita, noski, poblazio mugikor honekin hartueman eta zerbitzutan ziren Tuterarretan ere bai. Hori ditugu froga gisa bi testigantzak Tuterarako ez ezik Erriberako beste herri askotarako balioa izanen dutenak ere bai ziurrenik.


1- Libro de Albaiteria. Pedro Lopez de Zamora. Protoalbeitari del Reino de Navarra. Sarrera eta glosarioa: Teofilo Etxeberria Belzunegi. 1993. Miranda del Ebro. Autoedizioa.

2- Nafarroako artxibategia orokorra. Serie 2. P. 6704 zkia.



Eskuarte dute Iruñeko D. Teofilo Etxeberria Belzunegi, erretreta harturiko albaiteroak 1993 urtean Pedro Lopez de Zamora Nafarroako Erresumaren 'Protoalbaitari' izanak 1571 urtean idatzi zuen 'Libro de Albaiteria...' -ri buruz (1) egin dako ikerketa lana eta faksimile edizioa, bertan albaitaritzaren historiaren gure gaiari buruz. D. Teofilo Etxeberriarena da beraz meritua, nik bere lana jaso besterik ez dut egiten.

1546 urteko Apirilaren 14ean Nafarroako Erregeordeak eta Erret Kontseiluak Pedro Lopez de Zamora, Tuteran finkatutako Gaztelar albaiteroa, Nafarroako Erresumako albaitari nagusia (Protoalbeitari) izendatzen zuten. Bainan Iruñeko albaitari eta pererragileak ez omen ziren ados izendapenarekin eta pleitua (2) sortu zen Erret kontseiluaren



Liburuan hitz arrotzen hiztegi txiki bat jaso dago.

Cap. xxvj. De las causas naturales

Fo. xxxiiij.



lgo que las causas naturales son en los miembros y sus obras, y los humores y las operaciones de ellos, estando los dichos humores en sus propias qualidades y compleciones y guales y no discrepantes los unos de los otros, y estando así y guales lo que dellos resulta y guales de salud y cosa natural para el cuerpo, estando diferentes y desconcertados, es en enfermedad o enfermedad de las que proceden de las cosas no naturales que son estas, comer y beber demasiado y de demasiada de manjares dulces y agrios, y de otras muchas diferencias por la qual razón las digestiones de estomago chigado y las otras, y las virtudes de los miembros, todos estos se causan y no pueden hazer las digestiones como antes, por la dificultad de los manjares, así mismo dan trabajo y fatiga a la lobia natura que de necesidad ha de faer mantener el cuerpo de los miembros del cuerpo principales, así mismo de los otros accesorios para fauorecer y esforzar la flaqueza de las dichas digestiones, y por estas causas se haze en fermedad, y por estas otras siguientes, que es trabajar demasiado, lo qual no pueden sufrir los miembros del cuerpo (así de camino, como de exercicio) en otros trabajos, y así mismo de exercicio camal, y apertur sin orden, el qual muchas vezes se haze hazido el dicho exercicio antes del pasto que han comido o bebido hayo hecho la digestión natural en el estomago, tornando la digestión cruda, haziendo esse dicho acto de la carne, en la que se haze la virtud, por donde se figue el estomago, y causar por ello en

En el... de las...

auziperatzearena. Auzia 1539ko urrian ikusi zen Iruñean, eta bistan da munta handikoa izan zela, Pedro Lopezek 19 lekuko aurkeztu zituelako, eta bere kontrakoek 53. Zamorakoaren aldeko testigantzek azpimarratu zuten Gaztelan ez zela albaitaririk azterketa gainditu gabea, eta Pedro Lopez maila handiko albaitaritzat jotzen zuten. Beste batzuek utzitako zaldiak berak sendatu zituela azaldu zuten lekukoek, eta azpimarratu zuten ere Tuteran izen handiko pertsonaia zela.

Beste aldeko lekukoek, bestalde, zalantzan paratzen zuten albaitariaren gaitasuna «ez baitaki ferrak edo iltzeak egiten», eta paseorako zaldiak eta mandoak baino ez zituela ezagutzen. Halaber, oso azpimarratua izan zen bertakoa ez zela, eta hala eskatzen zuela legeak. Garrantzi handikotzat jotzen dute euskalduna ez izana, eta leporatzen diote jokuari emana izana, kartetan aritzen zelako frankotan «eliz gizon eta izen handiko jendearekin», batez ere ferietan. Halaber, leporatzen diote bere emaztea hil zenetik etxeko neskekin harremanetan dagoela, eta hiru seme-alaba izan dituela beraiekin. Pedro Lopezek azaldu zuen Tuteran bizi zela aspaldian, eta justizia eskatua zuela bere kontra jaurtiriko irainengatik, eta auzia ematekotan gelditu zen. Ez zen berri gehiagorik izan, eta 1546an, esan bezela, Albaitari Nagusia izendatu zuten.

Berak ikusiko ez zuen liburu honek zenbait berezitasun ditu: arraroa zen oso, Espainia osoan garai berean soilik hiru liburu argitaratu zirelako gai honetaz, goiztiarra izan zen, eta gaien tratamendu orijinala egin zuen. Teofilo Etxeberriak azpimarratu duenez, Pedro Lopezen lan honi «antzinako teoria humoral hipokratiko-galenikoa dario, baina dituen 88 kapitulu zenbaitetan antzeman daitezke gaur egungo zientziaren aztarna batzuk.

Jaun Dotoreak buruari pum-krak

Galdera: Galderan dago erantzuna, eta erantzuna galdera bat da.

Erantzuna: Pum, eskopetarena, jaun dotoreak bere buruari tiro egitean. Krak, mesanotxearena, jaun dotoreak buruarekin menanotxea apurtzean.

Galdera:Ene hatsapean ene fina dago. Successionetan etseac eraiquitzen eta erortzen, jausten dira, hedatuac içaten dira, removituac, restauratuac, edo haien lekuan jartzen da celhai ççabal bat, factoria bat edo carrica bat.

Erantzuna: Pum, eskopetaren burrunba (errepitidora da). Krak, pixontziarena, jaun dotoreak buruarekin pixontzia apurtzean.

Galdera: Dembora presente eta dembora pasatua, acaso daude presente biac dembora futuroan, eta dembora futuroa contenituric dembora pasatuan. Dembora guztia presente badin badago eternalqui irredimible da dembora guztia.

Erantzuna: Pum, errepitidorarena. Krak, Txinako lorontziarena, jaun dotoreak buruarekin Txinako lorontzia apurtzean (bide-nabar ikus bedi zertara Txinako lorontzia etorri diren Mendebaldera, txikitzera. Doktore honek ez du sekula Mendebaldean hausten ez den Txinako lorontzirik ezagutu. Errukigarriak Txinako lorontziak).

Galdera:Ni Juno naiz, eta ea inork sentitzen duen plazer gehiago galdeztzean, Tiresiasek erantzun zidan: «handiagoa da dudarik gabe gizonezkoei dagokiena baino zuen plazerra, emakumea». Tiresias jakintsua zen, ezen kolpatu egin zituen behin batean oihan orlegi batean biren soinak eta hagatik, oi gauza miresgarri!, gizona



«Dembora
presentea eta
dembora pasatua,
acaso daude
presente biac
dembora futuroan,
eta dembora
futuroa contenituric
dembora
pasatuan».



«Çoaz, Çoaz, çoaz,
erran çuen çoriak,
genero humanoac
ecin supporta
deçaque realitate
handiric».

utzi eta emakume bihurtzen zazpi larrazkenetarako. Bi sexuren plazerrak ezagutzen zituen, eta esan zuen emakumeek goia josten dutela, gizonok ez bezala.

Erantzuna: Pum, eskopetarena. Krak, liburu-mandiorena, jaun dotoreak buruarekin liburu-mandioa apurtzean.

Galdera:Çoaz, Çoaz, çoaz, erran çuen çoriak, genero humanoac ecin supporta deçaque realitate handiric. Dembora pasatuac eta dembora futuroac, guertha ahal içan cenac eta guerthatu cenac bethi presente dagoen fin batera desarratzen dute.

Erantzuna: Pum, jaun dotoreak tiro egitean bere buruari. Krak, jaun dotorearen buruak bere pixontzia apurtzean.

Oharra: Bakero pelikuletan bezala, pianojoleak lixkarra datorrela ohartuta hanka egiten duen bezala, guk

ere hanka egiten dugu, pelikularen dueloa etortzeko da eta. Zer duelo? *Hypocrite lecteur!— Mon semblable,— mon frère.* Zure biziak prestatu dizun dueloa. Ea hori hobea duzun, jaun dotoreak baino. Pum eta krak.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskara eta pidgin hizkuntzak

Kanadako ekialdeko itsasertzean gure hizkuntza osagai garrantzitsua



Bada gauza ororen jakina euskara uharre hizkuntza dugula. Mundu osoko bestelako hizkuntzekin parekatzeko egin saio ugari burutu izanak ez du halarik ere garrantzizko etekin nabarmenagirik oraindino erdietsi. Batek baino gehiagok noizbait aditu ote du Kaukasoko hizkuntzekiko senidetze harreman proposamen serio baino serioagoa —adibide bat aipatzearen Trombettiren 1925.eko *Le origini della lingua basca* gogora ekar liteke—, baina hori ez dugu saiakera bakarra, eta Afrika iparraldeko bereber hizkuntzekin lotura baten bat ere aritu da azaleratzen —Gabelentz, Uhlenbeck edo Lafon kasu—. Bonaparte printzeak berak ere finoise mintzairerkin harremana ikertzen ihardun zuen, eta adibideak aipatzen jarraiki izatekotan, munduko beste mintzaira berezi frango izanen genituzke aipagai, uraliko-altaiko taldekoak, Siberiako txuktxe, Karakorungo burutxaski, eta gaelikoa bera ere, sinismen anglikanoaren mezulari aparta baina linguista arront kaxkarraren George Henry Borrowk bere 1835.eko *The bible in Spain* liburuan azaldu zuen gisan. Modu batez ere, ezin da ahantzi tesi vasco-iberista zeritzana, apologistengandik jada jaso izan duguna, eta modu serio eta zehatz batez egungo ikerlariren batek berekarri izan duena: «*Nunca el euscaro separaria a los vascos de los españoles, pues es una lengua hablada en la remotísima España neolítica*», Claudio Sanchez Albornoz dixit. Iruzkirik soberan da.

Halere, baditugu horren xedekorak ez diren beste konparaketak, esaterako ipar Amerikako zenbait herritako hizkuntzekin egin ikerkuntzak. Justo Garate handiak 1949. urteko *Eusko jakintza* aldizkarian irokiaren mintzairerikiko harremana aurkeztu zuen 'El euskera y las lenguas amerindias' izeneko artikuluxka batetan. Urte batzuk lehen-txeago Charancey zenak Paben 1892.ean argitara eman zuen bere *Des affinités de la langue basque avec divers idiomes des deux continents* liburuan gauza bera proposatzen du herri algonkinoetako hizkuntzekin. Hauze ez da harrizkoa, kontutan hartzen badugu euskaldunak lehen-dabiziko uneetatik Amerikako iparraldera joaten zirela bale eta makailu bankuen atzetik, Ternua eta Labrador inguruetara. Amsterdameko Unibertsitateko zen Peter Bakkerrendako Kanadako ekialdeko itsasertzean euskara osagai garrantzizkoa zuen pidgin motatako hizkuntza bazegoen 1560 eta 1640 urteen artean. Halere, lehen eta behin komenigarria dateki pidgin hiz-

kuntza bat zer den azaltzea. Hizkuntza ezberdinetako zenbait pertsonen elkarrekin ulertu nahi dutenean, bere hizkerak sinplifikatzen eta errazten saiatzen aritu behar dira, egitura xotilak eta xumeak nahiz hiztegi laburra eta zehatza erabiliz. Horrelako komunikazioa murrizta izanda ere usu egiten denean, hizkuntza berri baten antzekoa sortzen da, pidgin izeneko. Pidgin hizkuntzen artean ezaguna gertatu ote da lingua franca zeritzana. Mediterraneo itsasoak bustitzen dituen kostaldeetako turko zein kristauen arteko harremanak garatzeko erabili izan zena. Egun pidgin bat dugu Papua-Ginean erabiltzen den Tok-pisin, baita Afrikako-mendebaldeko zenbait herritan, Nigeria, Ghana, Kamerun, Ekuador, Ginea... Pidgin ama hizkuntza bihurtzen denean, orduan kreolera da.

Euskaldunek arruntki kurritu zuten Kanadako aipatu ingurua, bertako toponimia zaharrak aditzera ematen duen gisaz: Buruxumea, Makallaoa, Buruandia, Sanlorenzo-xumea, Mikeleportu, Oporportu, Portutxua, Etxaideportu, Ulizilo, tabar luzexka bat. Bizkaia Berria egun Labrador eta Newfoundlandko ingurua zen, eta bertan zabaltzen zen garatu merkatal harremanetarako euskal oinarriko pidgin hura —Plasentia, Port Royal, Tadoussac, Magdalena uhartea...— euskaldunak eta zenbait herri indioen artean —algonkinoak, mikmak, malisst, abnaki, ojibwa, irokes edo huron—. Honezkeronon baita agertua bada euskaldunek bertakoei agurra luza, *Nola hago hi?*, poliki ongi ihardesten zietela Ongi, baina apezak hobeki!

Halere, baleak Ternuako aldean urritzen hasi zirenean, Groenlandia eta Islandiako uretara abiatu ziren euskaldunak berriro, eta bertakoekin ulertu ahal izateko beste pidgin berri bat sortu behar izan zuten. Honi buruzko informazioa poxi bat osatua goa bada, izan ere, 1937. urtean Nicolas Gerardus Hendricus Den izeneko Leideneko irakasle batek bere latinez izkiriaturiko tesi doktorala aurkeztu baitzuen izenburu honen pean, *Glossaria duo vasco-islandica*. Bertan XVII. mendeko bi euskara-islandiera hitz zerrenden berri ematen ditu: *Tertii cuiusdam quae reliqua sunt*, eta *Glossarium prius vocabula gallica et glossarium alterum vocabula biscaica alterius auctoris*. Biak Kopenhageko Armanagaeana izeneko bibliotekan zeuden, baina 1986. urtetik hona Rejkjavicen dira. Bi zerrendak Vestfirðir izeneko Islandiako herrialdean ondu bide ziren, baina idazle eta idazketaren berririk ez dugu.



■ Iruñeko Xake Txapelketa irekiko seigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 2an jokatu.

Ruslan Pogorelov, 2.415 ELOkoa (Ukrania)-Davor Komljenovic, 2.465 ELOkoa (Kroazia).

1.e4, c5; 2.d3, Zc6; 3.g3, g6; 4.Ag2, Ag7; 5.Zf3, Zf6; 6.0-0, 0-0.

Paralelismoa nagusi da. Norik erasoko duen zain daude.

7.bz-d2, d6; 8.c3, e5; 9.a4, h6; 10.Zc4, Ae6; 11.De2, Ge8; 12.Gd1, Dc7; 13.h3, aG-d8; 14.Ze3, d5; 15.d5, Zd5; 16.Zd5, Ad5; 17.Ae3, b6; 18.Zd2,

Ag2; 19.Eg2, Dd7; 20.Df3, De6; 21.Zc4, f5; 22.b3, Eh7; 23.Ag-c1; 24.a5.


Jokoa nahastea ez die onik eginen.

24...., b5; 25.Za3, a6; 26.Ac5, Za5; 27.b4.

Trukeen bukaerak gauzak zail jarriko dizkie txuriei. Ikus koadroa.

27...., Zb3; 28.Gb1, Zc5; 29.c5, eG-d8; 30.De3, Da2; 31.Ga1, Db3; 32.d4, Dd5 xa; 33.Df7.

Peoi bat galduko dute txuriek. Ez daude ongi. Posizioak pentsatzeko denbora dexente eskatu eta gero, bandera errukigabea erori zitzairen. Galdu egin zuten txuriek.





Uztailaren 1ean zabalduko da ehiza garaia.

Aurtengo ehiza garairako araudia jakinarazi berri du Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuak. Araudian zehaztuta daude ehizarako garaia, espezieak —22— eta hainbat xehetasun, eta bi alderditan banatzen du lurraldea, eta bakoitzari ehiza epe ezberdinak dagozkie.

1995-1996ko ehiza garaia

IRUNEA

Ehiza egiteko garaia eta egunak espezie bakoitzendako paratutakoak dira, irekiera eta itxiera datak barne. Ehiza eremu bat herri batzuen artean osatuta baldin badago, herriko jaiegun bat hartu beharko da, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailari jakinarazi. Ondoan zehaztuta daude aipatu garaia espezie bakoitzari dagozkionak.

Basurdea: 1995eko irailaren 3tik 1996ko urtarrilaren 28ra, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan. Ehiza eginez gero, 1996ko otsailaren 25ra arte izanen da epea aipatu egunetan, baina bakarrik urteko aleendako.

Orkatza: 1995eko uztailaren 1etik 31ra, egun orotan, aurretik baimendutako ehiza eremuetan. Irailaren 3tik azaroaren 1era arte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, Ehizarako Plangintza Orokorrean zehaztutako kopuruen arabera.

Oreina eta adarzabala: 1995eko irailaren 28tik urriaren 12ra arte, egun orotan, aurretik baimendutako ehiza barrutietan. Urriaren 13tik 1996ko urtarrilaren 28ra bitarte, ostegun, igande eta jaiegunetan, Ehizarako Plangintza Orokorrean zehaztutako kopuruen arabera.

Azeria: 1995eko azaroaren 1etik, 1996ko urtarrilaren 28ra

arte, ostegun, igande eta jaiegunetan. Halaber, animalia hau ehizatu ahal izango da beste espeziendako antolaturiko ehizaldietan abuztuaren 6tik aurrera, Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailari 15 eguneko aurrerapenarekin abisatuz gero.

Eperra eta erbia: 1995eko azaroaren 1etik 1996ko urtarrilaren 28ra arte, igande eta jaiegunetan, ehiza barruti bakoitzean paratutako egutegiaren arabera. Eguneko hiru ale baino gehiago ezin du ehizatu ehiztari bakoitzak, bi espezieak kontuan harturik. Hegoaldean ere erbia harrapatu

Uso eta birigarro-rako ehiza postuek 50 metroko distantzia izan beharko dute elkarren artean.

Usoa eta eperra

IRUNEA

■ Usoa ehizatzeke arautegi berezia onartu du Nafarroako Gobernuak, ohi den bezala. Horren arabera, ehiza eremuak finkoak izango dira, eta mendi kaskoetan edo magalean alderdi garaietan egon beharko dute. Ezin da toki horietatik kanpo ehizatu, ezta eskopeta kargatuta ibiltzea ere. Ehiza postu berri bat paratu ahal izateko baimena eskatuko zaio Ingurugiro Sailari.

ahal izango da larunbatetan, xarlangoekin, eskopeta eta makilarik gabe, eta koadrila bakoitzak gehienez bi xarlango erabiliko dituela. Hauekin beste ehiza txakurrak eraman ahal izango dira. Iparraldean ostegunetan ehizatu ahal izango dira erbiak ehiza txakurrekin, eskopetarik gabe.

Mendi-untxia: 1995eko azaroaren 1tik 1996ko urtarrilaren 28ra arte, ostegun, igande eta jaiegunetan, ehiza barruti bakoitzak duen egutegiaren arabera.

Uretakoak: antzar hankagorritza, zertzeta arrunta, uda-zertzeta, basahatea, istingor txikia, istin-

Birigarrorako postuek ere badute araudi berezia, baina oro har, usorako balio duena erabiliko da hemen ere.

Bestalde, debekatuta dago eperra ehizatzea erakartzeko trinkimailuen bidez, eta Iparraldeko beste elkarteetan banaturik erabiliko diren ehiza postuetan, udazkeneko migrazioan zehar ehizatu ahal izango da, Frantziako araudiaren arabera, baina soilik Nafarroan baimenduta dauden espezieak.

Ehiza eremurako bi zonen arteko marra Agilar, Lizarra, Etxauri, Erreniega, Irunberri eta Leireko mendizerra lotuko dituen da.

gor arrunta, hegabera eta kope-tazuri arrunta azaroaren 1etik abenduaren 31 bitarte ehizatu ahal izango dira, ostegun, igande eta jaiegunetan.

Oilagorra: Iparraldean 1995eko urriaren 15etik 1996ko urtarrilaren 28ra arte harrapatu ahal izango da, egun orotan, oihanean eta ezchildun txakurrak erabilita. Hegoaldean azaroaren 1tik 1996ko urtarrilaren 28ra arte ehizatu ahal izango dira, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan.

Birigarro arrunta, garratarroa, durdula eta birigarro txikia: 1995eko azaroaren 1etik 1996ko urtarrilaren 28ra arte, igande eta jaiegunetan. Halaber, horretarako baimenduta dauden ehiza postuetan egun guztietan ehizatu ahal izango dira, eta usoren ehiza postuetan, urriaren 1etik abenduaren 10era arte.

Galeperra: Hegoaldean, abuztuaren 6tik irailaren 17ra arte harrapatu ahal izango da, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, Ehizarako Plangintza Orokorrak horretarako baimendutako ehiza eremuetan. Iparraldean abuztuaren 15etik irailaren 17ra arte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan. Halaber, ehizatu ahal izango da eper gorrirako dauden egunetan zehar.

Usapal arrunta: abuztuaren 27tik irailaren 17ra arte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan. Ehiztari bakoitzak hiru ale harrapatu ahal izango du gehienez eguneko. Soilik ehizatu ahal izango da galeperraren toki berean eta usorako ehiza toki baimenduetan.

Mika, belea, Araba zozo pikarta eta Araba zozo beltza: espezie hauen ezaugarri berberak dituzten besteen ehiza garaietan ehizatu ahal izango dira hauek ere.

Haitz-uso, txoloma eta pagauso: Hegoaldean, abuztuaren 6tik irailaren 17ra bitarte, eta Iparraldean, abuztuaren 15etik irailaren 17ra bitarte, galeperrak dituen baldintza berberekin. Urriaren 1etik abenduaren 10era bitarte ohiko pasatoki, ehiza postu eta baimendutako txaboletan, egun orotan. 1995eko azaroaren 1etik eta 1996ko urtarrilaren 28ra bitarte, jautzian ehizatu ahal izango da Hegoaldean, igande eta jaiegunetan, eta Iparraldean, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan.

Faisaia: azaroaren 1etik 1996ko urtarrilaren 28ra arte, igande eta jaiegunetan.

Bi zonen arteko marra Agilar, Lizarra, Etxauri, Erreniega, Irunberri eta Leireko mendizerra lotuko dituen da.

«Historia ez da hasten euskara batuarekin»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Joan den astean aurkeztu zuen Iruñean Pamiela argitaletxeak 'Nafarroako euskal idazleak II' Txema Larreak irakasle bizkaitarrak prestatu liburu, lehen bilduma aurkeztu eta zortzi urtera.

EGUNKARIA.— Zortzi urte igaro dira 'Nafarroako idazleak I' liburu kaleratu zenuenetik. Zer-nolako lana izan da bigarren honen prestaketa?

TXEMA LARREA.— Egia esanda, ez dira zortzi urte izan lan honekin. Gogotik eginda eta astia edukita, askoz lehenago egin zitekeen, baina ibili naiz beste gauza askorekin. Lana izan da, biltzea Iparraldeko testuak, 'Eskualduna' aldizkariak gehienak. Beste gauza batzuk banituen lehendik prestatuta, eta horretaz gain transkribatzeko irizpideak bilatu behar nituen. Hasieran ez nuen irizpide garbirik horretarako, ezta aukeratzeko zer artikulua sartu behar nituen ere. Hori zehaztea izan da lana.

EGUNKARIA.— Liburu honen sailkapena gaika egin duzu, baina garbiagoa dirudi irakurlearendako aurrekoan egindakoak, autoreka egindakoak alegia. Zergatik izan da aldaketa?

LARREA.— Aurrekoan idazleen kronologietan segitzen den irizpidea hartu nuen nik ere, baina oraingoan pentsatu nuen askoz ere interesgarriagoa izango zela azpimarratzea zein zen idazle hauen ekarpena. Eta beren ekarpen garrantzitsuena kazetaritzan dagoenez hartu nuen aintzat kazetaritzan lantzen diren generoak, eta alde horretatik egin nuen sailkapena. Liburuaren amaieran aurkibidea dago eta ez dut uste hainbeste oztopo izango denik nork nahi duen idazlea hautematea.

EGUNKARIA.— Kazetaritza izan zen hauetako idazle gehienaren arloa. Zergatik jo zuten horretarat, eta ez, esaterako, liburuak argitaratzerat?

LARREA.— Oso merkatu txikia zuten, eta, gainera, idazle hauek gehienak apaizak ziren. Idazterakoan beren asmoa zen jendearengana helaraztea esan nahi zutena. Eta jende hori zen 'Eskualduna' edo 'Diario de Navarra' argital-

peneko irakurleak. Gainera, uste dut idazle hauek ez zutela kontzientzia garbia idazle zirena, baizik eta uste zuten zerbait egin behar zutela jendeari eskaintzeko. Larrekoren idazkietan askotan irakurtzen da «ni oso idazle txarra naiz, baina zerbait egin behar dut...». Hori da sentimendua, eta hori muga izan zen liburu bat argitaratzeko.

EGUNKARIA.— Hala ere, topatu duzu idazle hauen materialik liburuak argitaratzeko?

LARREA.— Bai, liburu asko daude oraindik egiteko. Materiala bada, eta bada jendea hori prestatzen ari dena. Alexander Tapia Perurenaren lanarekin Joxe Angel Irigarai egiten ari dena oso garrantzitsua da, Lauaxetaren eta horien pareko

lana dela uste dut. Iparraldera begiratzen badugu, entsegutan-eta obra inportante bat dago hor. Arazoa da orain arte akritikoki onartu dugula euskara batuaren inguruan ibili zen belaunaldiak egin zuen historia baina

«Nafarroako euskal idazle hauek ez zuten idazle ziren kontzientzia garbirik, baina uste zuten zerbait egin behar zutela jendeari eskaintzeko».

historia ez da hasten euskara batuarekin ez eta EGUNKARIA-rekin ere...

EGUNKARIA.— Larrekoren edo Manezaundiren lanak irakurtzen direnean garbi antzematen da badela hor kazetaritza tradizio sendo bat, baina Hego Euskal Herrian eragin txikia izan du. Muga ez zuelako erabat pasatu agian?


LARREA.— Arrazoi bat baino gehiago bada. Gutxi ezaguna da, baina horretaz gain bada kontrako jarrera bat, jende askok pentsatzen duelako eskuindarrak direla, eta ez dela komeni beraiekin kontatzea. Bada ere harrotasun pixka bat esateko «orain arte egin den guztia ez da ezer, eta mundua gurekin hasten da». Duela guti aurkeztu zuten tesi bat Leioako Unibertsitatean euskal prentsari buruz, eta horren arabera euskal prentsa hasten zen EGUNKARIA-rekin. Oro har, bada sentimendu bat esateko «jende hori ez da gurea», eta gutxietsia izan da Iparraldean eta batez ere hemen. Hemen sortu den produktua oso konpaktoa da, koherentea, eta hori da Gipuzkoatik datorren euskararen inguruko diskurtso guztia.

EGUNKARIA.— Bi liburu hauen ondotik hirugarrena prestatzeko asmoa omen duzu. Sartuko lirarteke hor gaur egungo idazleak?

LARREA.— Uste dut ezetz. Nahiz eta orain oso jende ona izan —Patziku Perurena, Eduardo Gil Bera, Aingeru Epaltza— oraindik bada jende honek idatziriko materiala ateratzeko. Esate baterako, kirolei buruz, medikuntzari buruz, entsegu historikoak oraindik bada, oraindik agertu ez diren Iparraldeko idazle batzuen batez ere. Eta uste dut merezi duela ezagutzea.

EGUNKARIA.— Eta gero etorriko litzateke laugarren bat, edo zure interesa bakarrik ezezagunengan dago?

LARREA.— Ez, denetan, baina ez dakit zenbateraino mereziko lukeen momentu honetan ezagunak diren idazleen lanak argitaratzeko. Momentu honetan jendeak badu Patziku edo beste batzuk irakurtzea.



JOXE LACALLE

Txema Larrea

IRAKASLEA



SOSLATA

Iturria Lapurdin

Egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, duela zortzi urte kaleratu zuen Txema Larreak, Periko Diez de Ultzurru-ekin batera, 'Nafarroako Euskal Idazleak' sailaren lehen alea. Intzako Damaso, Ziriako eta Federiko Garralda, Larreko eta Blas Alegria azaldu ziren orduko bilduma hartan, eta oraingoan, besteak beste, Arotzarena, Araña, Ixurko, Otsobi, Izeta eta Zubiri. Tartean 'Euskaldukoa erroizturik' eta 'Ele neumati-koak' idazlanak ere aurkeztu ditu, denak Pamiela argitaletxearen eskutik. Ipar Euskal Herrian dagoen kazetaritza tradizioaren aldarrikatzaile sutsua, iturria Lapurdin dagoela dio.

NOSKI JATOR

Sanfermiñak ①: Kanpotarrak iritsi dira.



© Zaldí EROA